

Arrasate

P R E S S A

1995eko
ekainak 23
282. zenb.

ELKARRIZKETA
Iñaki Barrena
txistularia

KIROLAK
Txirrindularitza,
pilota eta
herri kirolak

Aupa
San Juan jaiak!





**SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
ARRASATEAR
GUZTIOI**

Zuen zerbitzuan:

**AUKEA, ITURBIDE EGOITZA, UDALAKO INGURUGIRO ESKOLA,
DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB, ESKOLA KONTSEILUA,
GAZTERIA BATZORDEA, MONTERRON KULTUR ETXEA,
AMAIA ANTZOKIA, ARRASATE IRRATIA.**

Udal abertzalea, udal tolerantzia

Lurrikararen epizentroa iragan dugu jada eta badirudi jai lasaia ospatu bahal izango ditugula. Orain lurrikararen ondorio urrunak sentituko ditugu, Arrasateko Udaletxean zentsura moztirik gauzatzen ez bada behintzat. Carlos Garaikoetxea jaunak iragarri du jada zentsura moztioa aurkeztu behar dela, sozialistek hirukoa errespetatu dezaten. Inuzente eguna, dena den, abenduaren 28an da; baina, tira, itxurei eustea ere ez dago txarto. Politikan sarritan jarduera hortara mugatzen da: itxurara.

Tolerantziaren itxura adibidez. HBk zortzi urtetan Udala gidatu du, baina ez ahaztu, EAJ eta, batez ere EAren laguntzarekin. Gainera ehuneko oso handi batean HB eta EA eguneroko Udala kudeaketan bat etorri dira. Modu zabalean gobernatu da. Egon al da Arrasaten urte hauetan, Errenteria, Hernani, Donostia eta beste hainbatetan egondako istilu larrikik? Egon dira istiluak, jakina, Arrasatek ez baitio ihes egiten Euskal Herriak bizi duen gatazka egoerari, baina ukazina da Arrasateko hiruko gobernuaren -HB buruan- egonkortasun eragile izan dela. Begibistako kontua da, edozein arrasatearrek baieztatu dezakeena.

Ulertezina zera da, eta are gutxiago tolerantziaren izenean: zortzi urtetan horrela gobernatu eta 3.500 bototik gora lortu duen indarra, bapatean herrian existituko ez balu moduan utzi gura izatea. Intolerantzia hori da. Sinestezina-

goa oraindik -sei urtetik gorako edonork asma dezake- hori gertatuz gero, herri honek bake santuan jarraituko duela.

Auskalo norenak ziren, baina bi boto zuri haiek tolerantziaren bidea samurtu dute Arrasaten; eta garrantzitsuagoa dena -horrenbeste tolerantziari usaia dario eta abertzaleen arteko elkar lanaren aukera jarri dute mahai gainean, Arrasaten eta Euskal Herrian etorkizun euskaldun eta askeri ekiteko modu bakarra.

Ez da horrenbeste lapurketa bai ala ez, politika munduan lapurketak interesen araberakoak dira eta. Baina zalantza barik, interesgarriagoa da HB-PNV-EAN oinarritutako udal gobernuaren, PNV-PSOE-EA hirukoan oinarritutakoa baino. EAko botoemale gehienentzat horrela delakoan nago, eta EAJko askorentzat ere bai. Lau urte dela, modu desberdinean baina beste horrenbeste gertatu zen Arrasaten. Birritan gertatzeak, nahiz eta txiripaz izan, esangura handia du irakurri gura duenarentzat.

Baina San Juanak dira, eta bazkari, tragoxka, buruhandi, kantu eta zarata artean, egunerokotasunetik apur bat ateratzea ere komeni da eta, beste barik, jada dastatzen jardutea. Eta zuei, Herrera, Valdemoro, Murtzia, Iparralde, Frantzia, Afrika, Hego Amerika eta edozein bazterretan zaudeten Arrasateko preso eta iheslariari, besarkada handi bat eta San Juan suaren garra indartsu eta itxaropentsuena.

XABIER LETONA

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatekoa**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Telefonoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Beñardo Kortabarria. Kazetariak: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. Publizitatea: Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). Administrazioa: Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Telefonoa: 77 08 15). Maketazioa: Golo Arana. Kolaboratzaileak: Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. Banaketa arduraduna: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: ASA argazkilari taldea

Arrasateko estiloa

Xabier Zubizarreta hiru-garrenez Arrasateko Alkatea izatea ezin zaio kasualitateari leporatu. Oraingo boto zuriak norenak izan ote diren anekdotikoa izan daiteke, nahiko frogatua dagoen errealitate baten aurrean: Arrasatek baduela gauzak egiteko bere estilo berezia.

Arrasatear ez izateak ematen duen perspektibatik, uste dut herri honek elkarlanerako duen gaitasunean dagoela gakoa. Elkarlanari lehen-tasuna ematetik sortu dira kooperatibak, mundu zaballean hain harrigarri gertatzen den fenomeno. Udalak AED eta ARKOekin eraman duen elkarlanetik etorri dira, era berean, Euskal Herrian eredugarri izan den hainbat emaitza, eta ondo ezagutzen ditudanez bakarrik ari naiz.

Alkatea aukeratzerakoan ere joera honi eutsi zaiola uste dut, anekdotak alde batera. Herritarren artean errotuta dago Xabier Zubizarretaren Alkatezako elkarlana bideratzen asmatu egin duela Udalean, eta hori alderdien goi mailako interesak baino inportanteagoa dela herriarentzat. Arrasateko HBk ere badaki istiluak oztupo bihurtzen direla elkarlanerako eta dotorezia handiaz jokatu du hauteskunde egunetik Alkate hautaketara bitartean, antzerako egoeran zeuden beste herri batzuekin konparatuz.

Arrasateko estiloak eskatzen du orain Udal Gobernu ahalik eta zabalena osatzea. Udalean ez da ezinbesteko gobernu/oposizio jokoa, askoz ere eragingarriagoa da gai zehatzetan gehiengo ezberdinak sortzea, beti ere herriaren aldeko elkarlana helburu.

Euskal Herriarentzat ere txarra ez, hedatuago balego Arrasateko estiloa.

MIKEL IRIZAR

Ekainaren 28a, Homosexualitatea eta lesbianismoaren nazioarteko eguna

Maitatu beharra daukagu, konpartitzea, gozatzea, maitatuak izatea, bizirik gaudela sentitzea. Dena dela... diskriminazioa eta intolerantzia hitzek, gizarteak sexu jarra desberdinekiko eta espresio lesbiko eta homosexualakiko duen jarrera laburtuko lukete... homosexualitatea eta lesbianismoa gizateria bera bezain zaharrak izan arren. Azken aldean egin diren ikerketak soziologikoen argi erakusten dute, hiru emakume edo gizonetik batek harreman lesbiko eta homosexualak izan dituela bere bizitzan.

Gaur, ekainak 28, gure ahotsa altxatu nahi dugu, pertsona sexuatuak garen aldetik, gure sexualitatea nahi dugun bezala bizi izateko eskubidea daukagula aldarrikatzeko... askatasun osoz... bakoitza bere burua ezagutzeko gai izan dadila, maitatzeko gai... eta beste gorpu batzuren kontaktuen zirrara senti dezala.

Gorpuen errepresioa, puritanismoa eta jabetza pribatua salatzeke ordua da, akats biologikoen gezurra, ideologia erligiosoaren bidez eta familia, eskola eta komunikabideen bezalako erakunde bidez, boterearen sistemen interesen arabera inposatu nahi dugutena.

Emakumeok gure sexualitate aktiboa erreibindikatzeko, ez dependientea, autonomoa, zabala... norberak egin ditzala atseginerako eta plazererako aukerak.

Insumisioa arau heterosexualari!!

Lesbianismoa aukera bat da... heterosexualitatea beste bat. Izan zu zeu. Zeuk duzu aukera.

ARRASATEKO EGIZAN

Kartzelatik bertsoak

“Arratsaldeko txapeo ordu hauetan pentsatzen ari naiz herriko jaietan. Zuen tartean gustora nintzen murgilduko ezin nintzelarik inolaz ere asetuko. Jaietaz hainbat txatxara eta gogoetetan aritzen gera goizeko patio orduetan. Behin eta berriz egiten diogu Aviles-eri uko ez baitute gure suntsipena lortuko. Gure askatasun nahien ordainetan gaituzte Espainiako espetxeetan. Euskal Herria ez dute luzaroan bahituko denon artean baitugu libratuko. Orduan jarriko gera denok izardi patsetan parte hartuz sekulako herri jaietan”.

Jaietan ere askatasunaren alde!!
Osasuna eta kemena.


GOIO ETXABE (ARRASATEKO PRESO POLITIKOA)
OCAÑATIK ARRASATE HERRIARI

Oharrak

Honez gero konturatuko zinen irakurle, eskuartean duzun ARRASATE PRESS hau erabat berezia egin dugula, San Juan Jaiari eskainitakoa hain zuzen ere.

Ez da hau egun hauetan gure aldetik jasoko duzun berezitasun bakarra, San Juanetako larunbata, igandea eta astelehenean jaietan egunero gertatzen dena jasoz orrialde bereziak ateratzeko asmoa dugu eta. Kioskoetan, ATBk Sebero Altubek jarriko duen karpa inguruan, zezen plazarako sarreran, eta kalean ere eskainiko zaizkizu jaietako orrialde bereziak. Ez egin muzin eta har itzazu! bertan izango duzu jaietako informazio zabalena.

Honelako ahalegina egin eta gero, ulertuko duzue atsendalditxo ere ondo merezia daukagula; ondorioz, **datozren astean ez duzue ARRASATE PRESSik jasoko** zuen etxetan. Hurrengo San Fermin egunarekin batera iritsiko zaitzue, uztailaren 7an. Ordura arte formalak izan, baina San Juanetan arropa dotorea jantzi, kalera umorez irten, salto eta dantza egin... Ondo ibili!!



Costa Fleming

San Juan hauetan giro beroena!!

Txikiteorako aukera desberdina. Pintxo goxogoxoak dastatzeko.

Dantzatze giro aparta. Musikaririk onena.

Otorduetarako jatetxeak aukeran.



La ROTONDA

Munar, z/g
Tfnoa: 79 20 13
ARRASATE

Egarkia

Loramendi, 1
Tfnoa: 79 00 34
ARRASATE

XARAMELA

Loramendi, 1
Tfnoa: 79 61 64
ARRASATE

ARIMA ZURI

Loramendi, 1
Tfnoa: 79 61 64
ARRASATE

TXITXINPE

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

HILBERA

Uribarri Etorbidea, 1
Tfnoa: 79 22 70
ARRASATE

GOROSTI

Jatetxea

Arima Zuri Plaza
Tfnoa: 79 06 07
ARRASATE



Taberna-jatetxea Kafetegia

Larrea enparantza, 5
Tfnoa: 77 01 69

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburategia
 Monterraon77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 23
 Egunez eta gauez :Ruiz. Maala.

Larunbata 24
 Egunez eta gauez : Morales. San Andres.

Igandea 25
 Egunez eta gauez : Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 26
 Egunez eta gauez :Español. Iturriotz.

Asteartea 27
 Egunez eta gauez : Corcuera. Musakola.

Asteazkena 28
 Egunez eta gauez : Irizar. Erguin.

Osteguna 29
 Egunez eta gauez : Amezua. Santamaina

23 OSTIRALA


• **ZINEA**
 "Morirás en Chafarinas" 7etan eta 10etan.

• **SAN JUAN BEZPERA ARETXABALETAN**
 Arratsaldeko 6etan japoniar bonben jaurtiketa. 6.30etan Aretxabaletako txistulariekin kalejira eta buruhandiak. 7etan kaleko animazioa "Traperos del Rio" taldearekin. 8etan Loramendi dantza taldearen emanaldia. 10etatik goizaldera arte, Txinparta musika taldearekin dantzaldia Herriko Plazan. 10.30etan San Juan sua. Ohitura den bezala, 1995eko Santa Ageda Mutilek tantaia jasoko dute herriko plazan.

• **AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAREN EKINTZAK**
 Arratsaldeko 7etan txozna zabalduko da. 10etan Arrasateko errepresaliatuen aldeko manifestazioa Portaloian.

KIROLDEGIKO BILERA

Musakola eta Iturripeko kiroldogietako frontoiak, futbol, tenis eta squasheko kantzak alokatzeko interesatuak uztailaren 1ean Musakolako bulegoan goizeko 11etan bilera izango dute.



ELKARRIren MANIFESTAZIOA MADRILEN

Uztailaren 1ean Topaketa isila egiteko asmoa du Elkarrik Madrilan eta bertara joateko autobusa antolatu du. Joan nahi duzenok Hire Liburu dendan edo Garai San Andresen eman dezakezue izena edo 79 41 15 telefono zenbakira deitu.

24 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Asterix en América" 5etan. "Semillas de Rencor" 7.30etan eta 10etan.

• **AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAREN EKINTZAK**
 Goizez eta arratsaldez "Patrolaren" errifren salmenta Portaloian.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 "Nopresion" eta konfirmatu gabeko beste talde baten kontzertua Gaztetxean gaueko 10.30etatik aurrera. Nopresion taldea Mirandakoa da eta 2. elepearen aurkezpena egingo du. Bestalde, Gaztetxokoek kamisetak atera dituzte eta, dagoeneko, salgai daude lluntz tabernan eta Gaztetxean bertan.

25 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Asterix en América" 5etan eta "Semillas de rencor" 7.30etan eta 10etan.

• **AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAREN EKINTZAK**
 Eguerdiko 12etatik aurrera kamiseta, aldizkari, metxero, liburu... salmenta.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Udana, Gabiria, Ormaiztegi, Mutioloa, Idiazabal, Beasain eta Arrasate, 87 kilometro. Irteera goizeko 8.30etan Monterrondik

ESKOLEN ARTEKO 3x3 SASKIBALOI TXAPELKETA

Ekainaren 10ean 3X3 saskibaloi txapelketa jokatzeko aukera izango dute 81-82 eta 83-84 urteetan jaiotako neska-mutilek. Musakolako eta Iturripeko kiroldogietan eman dezakezue izena interesatuok, azken eguna ekainaren 9a.

GERONTOLOGIAKO IKASTAROAK

Gaia: "Osasun psikikoa pertsona nagusiengan", 10 orduko ikastaroa. Uztailaren 3tik 6ra, arratsaldeko 5.30etatik 8etara. Gaia: "Pertsona nagusientzat arreta programak", 10 orduko ikastaroa. Uztailaren 10etik 13ra, arratsaldeko 5.30etatik 8etara. Izena emateko Loramendi 4 edo 79 02 11/ 77 05 00, goizeko 10etatik ordubata arte eta 2.30etatik 6.30etara.

26 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Asterix en América" 5etan.
"Semillas de rencor" 7.30etan eta 10etan.
- **AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAREN EKINTZAK**
Herriko errepresaliatuei omenaldia eta herri bazkaria.

27 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Semillas de rencor" 7etan eta 9.30etan.

28 ASTEAZKENA

- **HOMOSEXUAL ETA LESBIANEN NAZIOARTEKO EGUNA**
Arratsaldeko 7.30etan manifestazioa Portaloian. EGIZAN eta Emakumearen Asanbladak antolatuta. Uztailaren 6an arratsaldeko 7etan Sexualitateari buruzko hitzaldia emango da Arrano Elkartean.

29 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Compañeros inseparables". Zuzendaria: Norman René. Gaueko 9.30etan Amaia Antzokian. Sarrera: 300 pta. eta gazte txartelarekin 250 pta.

NAFARROA IBILBIDEKO BIZTANLEEN AFARIA

Nafarroa ibilbidean bizi diren biztanle guztiek afaria izango dute uztailaren 1ean. Interesatuok Lua gozokidendan eman izena.

LAU BIDEKO APARKALEKUKO ORDUTEGIA

Ekainaren 23, 24, 25 eta 26 San Juan Jaietan Lau Bideko Udak aparkalekua gau eta egunez zabalik egongo da.

AED, TXATXILIPURDI ETA ARKOren TXOZNA

San Juan Jaietan AED, Txatxilipurdi eta Arko elkarteek txozna zabalduko dute Monterronen. Txoznaren inaugurazioa San Juan bezperan izango da, 23an arratsaldeko 6etan. Inaugurazioan Goenkaleko Txapas eta Gina izango dira ziuurrenik eta beste zenbait sorpresa ere bai. Arratsaldeko 6etan argituko dira sorpresa guztiak.



TXATXILIPURDIEN OHARRA

Txatxilipurdi, San Andres eta Musakolako Gazte Txokoek 14 urtetik 17 urte bitarteko gazteei, uztaila honetan, programaketa berezia eskaintzen diete. Uztailaren 3tik 28ra bitartera arratsaldeko 3etatik 7etara aktibitate pila bat egiteko aukera izango da: Oñatiko Gazte Lekuko diskoteka ezagutu, eskalatu, Garaio-irteera, espeologia... Uztaileko programa zehatz-mehatz ezagutu nahi izanez gero, 5etatik 8etara San Andres eta Musakolako Gazte txokoetara hurbildu zaitzekete.

IX. MARGO LEHIAKETA

Uztailaren 9an margo lehiaketa Aretxabaletan. Nahi duenak har dezake parte. Teknika librea izango da. Egin behar diren lanak goizeko 9etatik 11etara bitartean sinatuko dira. Gaia: "Aretxabaleta eta bere inguruak". Epaimahiaren erabakia arratsaldeko 7etan izango da eta ondoren, sari-banaketa Udaletxeko erakustokian. Sariak: lehena, 50.000 pta. eta garaikurra. Bigarrena 30.000 pta. eta garaikurra eta hirugarrena 25.000 pta. eta garaikurra.

UDAKO ORDUTEGIA IGERILEKUAN

Irailaren 15a arte igerilekua astelehenetik igandera arte goizeko 9etatik 8etara zabalik izango da. Beste instalakuntzak astelehenetik ostiralera 8.30etatik 9.30etara eta larunbat eta igandean 8.30etatik arratsaldeko 8.30etara.

SAN JUAN JAIETAKO PROGRAMA

San Juan jaietako programa goitik behera zehaztuta 14. orrialdetik 16. orrialdera aurkituko duzue.



28an GAY ETA LESBIANEN NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 28an, asteazkena, Gay eta Lesbianen eskubideen aldeko manifestazioa egingo da. Manifestazioa Portaloitik aterako da arratsaldeko 7.30etan. EGIZAN eta Emakumeen Asanbladak antolatuta.



Bi boto zurik Alkatetza eman Xabier Zubizarretari

Alderdiaren diziplinari eta itxura denez hitzartuta zegoen hirukoari uko eginez, bi zinegotzik zuri bozkatu zuten eta horrela, HBk lortu zuen alkatetza zapatuan. J.M Loitiri boto bakarra falta izan zitzaion, alkate izateko behar zituen 11 botoak lortzeko. Plenoa bukatzean inork ez zuen zuri bozkatu zuenik aitortu eta EA eta PSE-EEren artean tirabirak sortu ziren. Hirukoaren alde bozkatu zutela baieztatzeko, PSE-EEko zinegotziek prentsaurrekoa eman zuten astelehenean. HBri alkatetza kentzeko zentsura mozioa aurkeztea eta alderdi horrekin gobernua osatzeko elkarrizketarik ez hastea proposatu zioten EAri eta EAJri prentsaurrekoan. Uztailaren 17a baino lehenago, gobernua osatu eta antolakuntza finkatuko duen plenoa egin beharko da. Hori egindakoa, eraman ahal izango dira plenora zentsura mozioak.

Ramon Jauregi MCCn

Ramon Jauregi, Lan eta Justizia Sailburua Arrasatera etorri zen ostegunean. Goizean MCCko arduradunekin bildu zen eta ondoren, Eskola Politeknikoa bisitatu zuen. Eguerdian Fagorrek Garagartzan duen lantegian izan zen, produkzio prozesua gertutik ezagutzeko.

LABeko arduradun berriak

Eskualdeko arduradun berrien izenak eman zituen ezagutzera LABek. Arrasateko arduraduna Jon Alustiza izango da, Bergarakoak Lurdes Aierbe eta Martin Agirrezigor, Oñatikoa Marilu Orueta, eskualdeko arduraduna

Txema Garro eta Angel Basterra ekintza sindikalekoa. Herrietako ihardunari garrantzia eman nahi zaiola eta, uztailean bi egoitza gehiago zabalduko ditu LABek, bata Oñatin eta bestea Bergaran.

Arrasate Gida aurkeztu

Arrasatera etorriko diren kanpotarrendako lagungarri izango den "Arrasate Gida" liburuxka aurkeztu zuten Udaletxean ostiralean. Gida eskuratu nahi duten herritarrek, liburudendatan aurkituko dute salgai.

San Juan Bataiatzaileen obrak aurrera

Joan den astean parrokiaren erdialdeko hormako

lanak bukatu ziren. Lau hilabete behar izan dira horma konpondu eta atea berritzeko. Parrokiaren hormetan iragarkirik ez jartzea lortu nahi denez, elizako oharrak jartzeko panel bat jarri da.

Erdiko kaleko lanak bukatu ondoren, udaletxera begira dagoen horma, barrualdea eta kanpantorrea konponduko dira baina ez dago ziur noiz izango den.

Copreci saritua

Aretxabaletako Copreci kooperatibari enpresei ematen zaien "Principe Felipe" saria eman zioten asteazkenean Madrilan. Coprecik kalitate industriari ematen zaion saria jaso du. Sari banaketa uztailaren 4ean egingo da.

JAIOTZAK

- Jenny Elisabeth Alberdi Barnes. Maiatzaren 30ean.
- Maddi Elizburu Gardoki. 7an.
- Andoni Elduaen Roldan. 9an.
- Danel Maltras Iglesias. 12an.
- Xabier Garai Etxebarria. 13an

EZKONTZAK

- Miguel Angel Fernandez Cantero eta Pilar Peñaranda Gomez. Ekainaren 10ean. Elizaz.
- Ernesto Orueta Erostarbe eta Maria Asunción Perez de Labeaga Hernandez. 10ean. Zibilez.
- Enrique Miguel Meyer-Dohmer Fernandez eta Esperanza Olivenza Carrasco. 17an. Zibilez.

EZKONTZAK

- Rosario Arana Argarate. Ekainaren 14an. 82 urte.



Zuri Garbiketak

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizidira ateratzea.

Ikerne Heriz

Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak

LORAMENDI KIROLAK



Prestatu gurekin zure abentura!


Bainujantzietan
espezialistak

NEREA



**JAI
ZORIONTSUAK**

Erdiko kale, 28
ARRASATE
TFNOA: 79 13 43




Gaztetasunaren disdira.



- Solariuma
- Tratamenduak:
 - Aurpegikoak
 - Gorputzekoak
 - Makilaia
 - Masaia
 - Depilazioak
 - Manikura
 - Pedikura

LORE Lurrindegia


Olarte, 10 • ARRASATE • Tfnoa: 79 52 50




UNZUETA

JATETXEA eta LOGELAK

Zabola, Z/g
ARAMAIO (Araba)
Tfnoa: (945) 44 50 95



NEKAZAL
TURISMOA



* Antton del Campo

San Juan sua

Oso zabaldua dugu gaur egun gure herri eta auzoetan, San Juan bezperako gauean, herriko plazetan nahiz beste leku batzuetan, su handiak pizteko ohitura.

Euskal Herriko mitologiaren garrantzi handikoak dira sua eta bere inguruan sortutako mito eta sinesmenak.

Suak, eguzkiak bezala, argia sortzen du. Eta iluntasunaren sakontasunean izkutatzen diren sorgin eta jeinu gaizto guztiendako babesa eskaintzen du.

Horregatik jartzen dira eguzkiloreak atarrietan, batez ere San Juan bezperan, izpiritu gaiztoak uxatzeko asmoz.

Dirudienez gure arbasoek eguzkia gurtzen zuten, beraientzat Jainkoa baitzen. Lauburua bera eguzkiaren irudia da.

Batzuren ustez "euzkal-dun" hitza ere "euzki" (gaur egun eguzki) hitzetik etor dai-

teke, euskaldunak eguzkiaren adoratzaileak izanik.

Gaur egun oraindik, leku batzuetan, eguzkia hitzarekin eguzkiak ematen duen argia adierazten dute eta astroari eguzkibegi deitzen diote.

Argi dago beraz, argia, eguzkia eta sua, iluntasuna eta izpiritu gaiztoen etsaiak direla sinismen zaharreen.

San Juan eguna, urteko egun luzeena da, argiak eta eguzkiak gehien irauten duten eguna.

Hori dela eta, eguna luzatzeko asmotan eta egunaren

.....

"Nafarroako herri baten 'Sarna Gipuzkoara, ogia ta ardoa Nafarroara' esaten zuten"

iraupen luze hau ospatzeko suak pizten ziren iluntasunaren kontra.

Esaten da ere, San Juan gauean suaren gainetik salto egitea larru-gaisotasunen kontrako oso baliogarria dela.

Euskal Herriaren Yakin-tza liburuan begira zer kontatzen duen Resurrección María de Azkue idazleak: Donibane bezperan (Nafarroako herri batean) su handi bat egiten da etxe ondoan aurreko urteko belar bedein-katuaz, eta gero atso, nahiz agure, neskatxa nahiz mutil, hiru aldiz su haren gainetik iragaten dira. Lehenengo saltoan "Biba San Juan Bautista" esaten dute; bigarrenean "Biba Doni Belaio ta San Pedro" eta hirugarrenean "Sarna Gipuzkoara, ogia ta ardoa Nafarroara".

Iparaldeko herri batean, oraindik urte gutxi, emakume batek honela agurtzen zuen eguzkia egunero ilunabarrean: "Bihar artio Joanes", San Juan eguna eta eguzkiaren arteko lotura sendoa garbi adieraziz.

Udako solstizioan sua pizteko ohitura zahar hau zeltiar kulturatik datorrela dirudi eta Europako leku askotan bizirik dirau egunotan.

Ikusgarria ei da Egeo itsasoko uharteetan nahiz Norvegiako fiordoetako tontorretan San Juan gauean egin-dako suteak itsasotik ikustea, batez ere guzti hau ehundaka urte direla gure arbasoek eta zeltiarrek sortu eta zabaldu-tako ohitura dela pentsatuz.

* INJINERUA

USTEAK USTE

ARRASATE IS DIFFERENT!

Arrasate gure herria behin baino gehiagotan izan da beste herrietzat ere. Hor non dauden, bestela, kooperatiben esperientzia, euskararen alde daramagun borroka, musika arloan egiten ari den lana...

Joan zen larunbatean Alkatetza izendatzeko egindako botazioaren ondorioa neurtzea gustatuko litzaidake. Ikuspuntu abertzale batetik begiratu-ta, noski.

Kasualitatea ala ez, hor non dugun guztiz abertzalea den Gobernu Batzordea. Nire ustez, Gobernu Batzordea noren eskuetan gelditzen den da garrantzitsuena, eta ez Alkatetza. Horrela beharko luke izan.

HB, EAJ edo EA, berdin zaigu Alkatezarako bata edo bestea.

Gauza asko konponduko lirateke hiru alderdi horiekin osatuko balira beste erakunde batzuk ere. Hori da benetako hirukotea, herri honek behar eta nahi duena. Denok dakigu, hau posible izan dadin, alderdi bakoitzak makurtu egin beharko lukeela apur bat bere burua, baina gure egoera ez dago, ezta ere, txantxetarako.

Hor duzue, politikari guztiok, herri honek dituen arazoak konpon ditzakeen aukera: hirukote abertzale bat.

Horrela izanik, auskalo ez al dugun irakurriko, berriz ere, kilometroak 81 ospatu ondoren egunkari batek idatzitakoa: Arrasate is different.


JOSE RAMON ELORTZA



GORKA
ILEPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 • ARRASATE • Tfnoa: 77 13 78





ZABALETA

Lurrindegia
Opariak

Maisu Arano, 2 ARRASATE Tfnoa: 79 12 32

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

eya SYKALDEAK

APAINKETAN ESPEZIALIZATUTAKO
DENDA

- Sukaldeak
- Bainuak
- Opariak
- Altzari auxiliarrak



Ignazio Zuloaga, 4
Tfnoa: 79 05 07
ARRASATE

■ RUMBA TABERNA ■

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!


Iturriotz kalea, ARRASATE



HALCON *Bidaiak*

Iturriotz, 23 • Tfnoa: 79 29 88 Faxa: 79 29 29 • ARRASATE

1995 San Juan Jaiak



Arrasatearrok!

Iraganak erakusten lomen du hurrengoia nola dantzatu. Denboraren gurpilean beste urte bat igaro da, baina ez alferrik.

Herriko harmarri zaharra, zer ginen gogorra dakarkiguna, eraberitu egin dugu, etorkizuna urratuz; "lana egin ez goaz aurrera, sortuz eta sortuz gure aukera...".

Aitzakia bihur bitez aurtengo jaiak, lana eta atsedena, gaua eta eguna, tanborra eta atabala, musika eta dantza, heren-sugea eta errementariak elkar daitezen, eta haizeak eramango ez duen zerbait, elkarri esan diezaioten, San Juan sua lekuko.

Bere ondotik, agurrik beroena arrasatear guztioi eta bereziki, preso eta errefuxiatuak zaudeteni.

Atsegin dakizuela egitaraua.

Atseginago jaiak.

Ondo passau!

ALKATEA



Lana ahaztu eta kaleko giroa gozatu!

Jai egitaraua

Ekainak 23, ostirala

ARRATSALDEAN

3etan, Herriko Plazan etxafleroak.

4.30etan, bonba japoniarrak.

5etan, Herriko Plazan Goloka taldearekin "Praka motzak" kale animazioa.

7.30etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian Salve Solemnea.

GAUEAN

9etan, Nafarroa Etorbidetik Herriko Plazaraino Errementari Dantza; Arrasateko euskal musika eta dantza talde guztiek parte hartuko dute.

10.30etan, San Juan sua.

11etan, Nafarroa Etorbidetik irten eta herriko kaleetan zehar, Eskoriatzako Musika Bandarekin Nagusien Tanborrada, Herriko Plazan bukatuko delarik. SUDCek antolatuta.

Ordubatetik aurrera, Herriko Plazan Gaubela taldearekin dantzaldia. Kaleetan zehar Arrasateko Gaite-roen kalejira.

Ekainak 24, larunbata, San Juan Eguna

GOIZEAN

8.30etan Diana, Arrasateko gaiteroekin.

9etan, entzierroa. Ferrerias kaletik irten, Erdiko Kale eta Iturbidetik pasa ondoren Laubiden kokaturiko zezen plazan bukatuko da. Ondoren zaletuentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

11etan, San Juan Bataiatzailearen Parrokian Meza Nagusia.

11etan, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa-ren desfilea.

EGUERDIAN

12etan, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin kalejira.

12etan, Abaroan 80 urtetik gorako aiton-amonei omenaldia.

Ordubatetan, Monterron Parkean kontzertua Arrasate Musikaleko Musika Bandaren eskutik (eguraldi txarra egitekotan Amaia antzokian).

Atzerrian izandako udako abenturetan, batzuetan mutu gelditu zara...

Ez dakizun berriz gertatu,



UZTAILA


Egunean 2 ordu

ALEMANA, FRANTSESA, INGELESA

Ikas ezazu

UDAKO IKASTAROAK

Araba Etorbidea, 4 Tfnoa: 943/ 79 01 32 79 65 54 - ARRASATE
Olakua, 14 - Tfnoa: 71 60 00 - OÑATI



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**IRATI
TABERNA**

Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

ARRATSALDEAN

7.30etan, Seber Altube Plazan Bergarako Trikitilari taldea eta Ines eta Naiara; X. Amuriza eta Iñaki Murua bertsolariak.

GAUEAN

11etan, Herriko Plazan Magenta orkestarekin dantzaldia.

11etan, Seber Altube Plazan Bergarako Trikitilari taldea eta Ines eta Naiararekin erromeria.

11.30etan, Santa Barbaratik Suzko Errubera ikusgarriak.



Ekainak 25, igandea

GOIZEAN

8.30etan, Diana Arrasateko Gaiteroekin.

9etan, entzierroa. Aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaletuentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

9.30etan, 1. eta 2. mailako afizionatuentzat txirringulari lasterketa, 57. San Juan Saria.

11etan, Erraldoien VII. desfilea, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsaren X. urteurrena dela eta. Txantrea, Tafallako ikastola, Zangotza, Bilbo eta Arrasateko konpartsarekin. Desfilea Nafarroako Etorbidetik irten eta kaleetan zehar ibili ondoren Herriko Plazan bukatuko da.

11etatik ordubietara eta arratsaldeko 4etatik 7etara, Zaldibar pilota lekuan haurrentzako parkea (karts pista, puzgarri erraldoia, zezen mekanikoa, tren...).

ARRATSALDEAN

7etan, zezen plazan zezen jaialdia (zezen askaketa eta haurrentzako jolasak).

7etan, herriko kaleetan zehar kalejira Txalaparta txarangaren eskutik.

7.30etan, Sebero Altube plazan Leintz Bailarako bertsolari gazteak eta Arrasateko Trikitilari eskolako Aitziber eta Leire, Joana eta Iban trikitilariekin emanaldia.

GAUEAN

11etan, Sebero Altube Plazan Arrasateko Trikitilari eskolako Aitziber eta Leire, Joana eta Iban Trikitilariekin erromeria.

11etatik aurrera, Herriko Plazan Tarantela Orkestarekin dantzaldia.

12etan, Herriko Plazan Zezen suzkoa.

Zubizarreta




Ondo pasau eta asko gastau!

Zerkaosteta, 8 Tfnoa: 79 90 50 • ARRASATE

Iturriotz, 23
ARRASATE
Tfnoa: 77 02 76

KLAS
K



Umeentzako
moda

Ferreries Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

**Ekainak 26, Astelehena.
Herri Bazkaria**

GOIZEAN

8.30etan, Diana Arrasateko Gaiteroekin.

9etan, Entzierroa. Aurreko eguneko ibilbidetik. Ondoren zaletuentzat zezen plazan bigantxak izango dira.

EGUERTIAN

11.30etan, Kalejira Arrasateko Trikitilari taldea eta Iraunkorrek txarangarekin.

12etan, zezen plazan Herri Kirol saioa (harrijasotzaiak, trontzalariak...) Sarrera doan.

Ordubi t'erdietatik 6ak arte, Zaldibarko pilotaleku ondoan Herri Bazkaria. Goizeko 10etatik aurrera marmitakoa Ondarruko arrantzaleek gertatuko dute. SUD-Cek antolatuta. Tiket salmenta: Plus Ultra taberna, Monte taberna, Kajoi taberna, Hire liburudenda. Ondoren Dantza Txapelketa eta sekulako animazioa Arrasateko trikitilari eskolarekin. Herri bazkariko txartela: 800 pta.

ARRATSALDEAN

6.30etan, Zaldibarko frontoian esku pilota partidu interesgarriak.

Teloneoak: Juan Garcia Portero (Pirau) Reyes-en (Txikita de Elosu) aurka.


Estelarra: Txikito de Veneras - Barbero; Txikuri eta Eku-tixoren aurka.

7etan, Iraunkorrek txarangarekin kalejira.

GAUEAN

10etatik aurrera, Haitzama taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

12etan, Herriko Plazan zezen suzkoa.




Ekainaren 24tik 26ko goizera ATBk Seber Altube plazan jarriko duen platotik zuzeneko emaldiak eskainiko ditu egunero eguerdian (12.30-14.30) eta arratsaldez (18-20).

Bodisca s.l.

Zeramika pabimentu eta gaineztaldurak

Otalora, z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASTE

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARITXABALETAKO

Tfnoa: (943) 79 24 58

Los Vaqueros

Kalitatezko markak prezio onenean!

JAI ZORIONTSUAK!

Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 97 55
ARRASATE



Ondo daude San Juanak? Zer ipini edo kenduko zenuke?



Emilio del Campo
Langabetua
(45 urte)

Bai, bai. Irakurriko dut zer egiten den eta aukeratuko dut nora joan. Ez dakit, ni ez naiz kultur zinegotzia.




Mainer Murua
Ikaslea
(18 urte)

Bai, gauerako gauza gehiago, baita egunez ere. Egunez ez dago ezer ere ez. Gauza gehiago gazteendako.



Luis Zabala
Dendaria
(37 urte)

San Juanetan ez naiz hemen egongo, kanpora noa oportetara. Betiko dantzariak utziko nituzke, jaialdi on bat jarri eta euskal giroko zerbait ere.




Jose Ramon Belastegi
Torneroa
(48 urte)

Niretzat San Juanak ondo daude, akaso 20 urte izanez gero, ez. Ekintza kultural gehiago, gazteendako zerbait gehiago, musika edo kontzertuak edo roka.



Karmen Lamarain
Jubilatua
(84 urte)

San Juan Jaiak gustatzen zait baina ez nago hemen. Gazteendako da jaiak, gu moduko edadekoendako ez.



Imanol Exposito
Langabetua
(43 urte)

Herriko jaiak dira eta gustatzen zaizkit. Ez da erreza, pertsona bakoitzak ditu bere ideiak eta zaila izango litzaiteke baten edo besteen gustoa asmatzea.



Itziar Unzueta
Tabernaria
(35 urte)

San Juanak gustatu? ez dakit. Jai onak ez dira, ez dago ia ezer, baina hemengoak dira eta ospatu egin behar ditugu.



Mikel Alkorta
Ikaslea
(18 urte)

Bai, kontzertu gehiago jarriko nituzke, eta ez dakit, gazteendako gauza gehiago, bestela egunean zehar, behintzat iaz, ez zegoen ezer.



EKOMOBIL

PEUGEOT

Aprobetxa zaitetz Renove Planaren abantailaz. Gutxienez 300.000 pta.ko beherapena, hile honetan bakarrik!

Zaldizpe, 2 (Ospital ondoan)
Tfnoa: 79 50 71 Faxa: 79 97 12 ARRASATE

BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85



Zure etxeak Mobileffe armairu baten beharra izan dezake.

Gure armairuak aukeratzen duzun edozein tokitara egokitzen direlako. Horretarako, sakonean, altueran eta zabaleran neurri desberdin ugari dugu. Eta hori nahikoa ez balitz, neurrira egingo dizuegu. Ate mota desberdinak: biltzen direnak, irristagarriak, arruntak...

Banatzaile ofiziala

DUO DISEÑO

ALTZARIAK

Iturriotz, 21
ARRASATE • 77 14 94 / 79 28 86

Zer egingo duzu San Juanetan?




Josu Etxebarria
Ikaslea
(9 urte)

Gurasoekin batera San Juanak Salou-n pasatuko ditut. Han ondo ibiltzen naiz eta ez dit axola jaietan ez egotea.



Tamara Davila
Ikaslea
(12 urte)

Kalera irten lagunekin, arratsalde eta gauez. "Sapito loco" barrakan ere ibiliko naiz.



Rafael Carmona
Jubilatua
(58 urte)

Txarangarekin eta herriko plazako musikarekin dantza egin. Dantzarako afizioa dugu emazteak eta biok.



Jon Lizarralde
Ikaslea
(8 urte)

Ondo pasau. Kilikien aurretik takarraran egitea gustatzen zait eta horixe egingo dut.



Aitziber Alonso
Ikaslea
(7 urte)

Barraketan ibiliko naiz eta kilikiekin ere bai.



Manuel Del Rio
Jubilatua
(61 urte)

Zezenak ikustea gustatzen zaidanez, goiz jeikiko naiz entzierroa ikusteko. Txarangarekin ere ibiliko naiz.



Maria Nieves Laskurain
Etxekoandrea
(60 urte)

Ni Bergarakoa naiz eta gaztetan etortzen nintzen San Juanetara. Orain, berriz, ez, etxetik irtetea kostatzen da egiten zait eta.



Paula Vazquez
Ikaslea
(11 urte)

"Sapito loco"n ibili eta gauez atera. Gaueko hamabiak arte ibiliko naiz kalean.

M J. MARKIEGI
Jantzidenda
Zorionak!!

Olarte, 2 Tfnoa: 79 15 32 ARRASATE

LILYRA

OIHALAK

ONDO PASATU JAIK!

Zerkaosteta, 5 behea • ARRASATE • Tfnoa: 79 89 72

● *Iñaki Barrena*

“Txistua afizioa baino zerbait gehiago da”

Txistuaren soinua protagonista bihurtzen da jaietan. Arrasaten txistua jotzen dakien uste baino jende gehiago egon arren, ekintzetan parte hartzen 10en bat txistulari besterik ez dira ibiltzen. Horietako bat Iñaki Barrena da. Zortzi urte zituela hartu zuen txistua lehen aldiz.

- Zerk bultzatuta hasi zinen txistua jotzen eta noiz?

- Zortzi urterekin hasi nintzen, orain dela 13 urte. Etxean txistua genuen eta musika ikasten hasi nintzenean txistua aukeratu nuen baina ez dut arrazoiz zehatzik. Beharbada tresna etxean zegoelako.

- Txistua jotzeko ezaugarri berezirik?

- Tresna denekin bezala, gogoia eta afizioa.

- San Juan jaietan urte asko txistua jotzen, ezta?

- Bai, hamar bat urte daramatzat jaietako zenbait ekintzetan txistua jotzen. Ekin-tza batzuk Udaletxeak izaten dira eta hor ere txistulariok jotzen dugu. Esate batera Salvean Zinegotziak eta Alkatea Udaletxetik Parrokiara Alkate soinuaz eramaten ditugu, eta Meza Nagusian ere jotzen dugu. 23an San Juan bezperan arratsaldeko

3etan etxafleruekin batera kalejira egiten dugu San Juan zortzikoa joaz. Honetaz gain, dantzak baldin badaude, nik neuk, Lore Gazteak taldeko txistularia naizenez, jo egin behar dut. Gainera orain arte, San Juan sua pizten zenean eta dianetan jotzen genuen, baina azken urteetan dianak gaiteroen esku geratu dira.

- Jaietan txistua jo beharra gogorra da?

- Batzutan bai, baina benetan gustatuaz gero ez da hain gogorra. Nire ez zait inporta lehenago oheratzea goiz jaitzeko. Beste batzueri berriz, bai. Norberaren kontua da hori.


- Goizean jo behar duzula jakinda, zaintzen zara gauean?

- Gehienetan zaintzen naiz, eta batez ere egun osoan jo behar badut, bestela gogorra egiten da horrenbeste ordu gora eta behera ibiltzea.

- Egun txarra duzuenean asko igertzen da soinuak?

- Ezin duzu imajinatu zenbat igertzen den. Hatzamarrak ez dira ondo mugitzen, burua ere ez dago argi eta pieza samurren ere zaila egiten da.

- Zenbat txistulari dago Arrasaten?



- Txistua jotzen dakien jende asko dago, baina ekintzetan ez gabiltza gehiegi, hamarren bat.

- Gaur egun txistua ez dago modan, ados zaude?

- Ez nator bat ideia horrekin. Txistua beti egon da maila onean. Egia da bestalde Arrasaten azken boladan trititixa eskola jarri dela modan eta jende asko dagoela ikasten, baina txistua ere maila onean dagoen tresna da.

- Jotzeko orduan gehien gustatzen zaizun obra?

- Gernika, martxa funebreia da eta asko gustatzen zait, bihotzera heltzen den

horietakoa da. Fandagoan Antton dut gogokoen. Arin arina, Frantziska Martina eta kamarazko obra Birigarroak. Gutxien berriz, denok eza-gutzen dugun arin arina, beharbada, askotan jo dudalako.

- Neska bati zein musika eskainiko zenioke?


- Ana Mari fandangoa edo Birigarroak.

- Zein txistulari gustatzen zaizu gehien?

- Gehien entzuten den txistularia eta benetako maisua Jose Ignazio Ansorena da. Roberto Alvarez eta Xabier Bikandi ere oso onak dira.

● **“Jaietan txistua jo beharra gogorra egiten da, baina benetan gustatuaz gero ez da horrenbesterako”**

EZ DAGO KONPARAZIORIK



omu

keramikak

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Meazterreka, 6 • Tfnoa/Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
ERAKUSKETA: Otalora, 1 behea • Tfnoa: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK



Chapime tailerrak

Araba Etorbidea, zlg
Tfnoak.: 79 06 57
79 45 22
ARRASATE



**STOCK-ean DAUDEN
AUTOETAN AUKERA
PAREGABEA!!!**

MAIATZA
ETA EKAINA
eskaintza
berezia

AX	345.000	pta.rainoko aurrerapena
ZX	450.000	pta.rainoko aurrerapena
XANTIA ...	480.000	pta.rainoko aurrerapena
XM	650.000	pta.rainoko aurrerapena

Renove plangintza barne



Citroën

Ez duzu sinestuko Citroën-ek zuregatik egin dezakeena.




San Juanetako nagusien tanborrada izango dugu ostiralean gaueko 11etan. Tanborradan jende ugari hartuko du parte. **Monika Sanchez-ek SUDCe**ko bandera eramango du. **Amalur Lopezek Arrasatekoa, Carla Beltran de Gebara Amazona** izango da eta **Aitana Agirre ikurriña** eramango duena.



Tanborren eta barriken soinua nagusitu zen zapatuan Arrasateko kaleetan, izan ere **umeen tanborrada** ospatu zen. Umeak dotore dotore jantzita eta makilatxoak eskuetan zituztela elegante pasa zuten. Alboetan adurra dariola euren gurasoak eta beste zenbait ikusle. Hitz batean esateko, egun borobila izan zen parte hartzaile eta ikusleentzat.



Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak **pintura lehiaketa** antolatu zuen zapatuan. Margolariak goiz osoan kaballeta eta paletarekin kalean ibili ziren toki aproposena bila tzen lan onena egiteko. Margolari guztien artean onena Jokin Telleria beasaindarra izan zen.



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Pinpirin

Lentzeria Mertzzeria
Bainurako eta umeentzako erropak
Urbarri Etorbidea, 1 Tfnoa: 79 88 51



**1935 urteko kintoek afa-
ria izan zuten Bergarako
Lasa jatetxean. Bazka-
lostean dantzaldia eta
jokuak. Umeen pare pasa
zuten eta datorren urte-
an errepikatzeko gertu
ei daude. Jaia eta umo-**

**rea ez ziren falta izan.
Afariko antolatzaileek
esan digute argazkia
dohainik eskuratu nahi
duten kintoek Murua-
mendiaraz gozotegian,
erdiko kale 28an izan-
go dutela aukera.**



Mondragon abesbatza Frantziako Vichy herrian izan zen Salle d'Opera antzokiko inaugurazioan parte hartzen Donostiako Orfeoiarekin batera. Beethoven-en 9. sinfonia abestu zuten Capitele de Toulouse Orkestra Nazionalarekin batera eta Michel Plassonen zuzendaritzapean.



EPELDE

Josu Zurutuza eta Eba Perez de Eula-
te eskoriatarrak maiatzaren 13an ezkon-
du ziren. Zorionak bikote!



LASO

Manu eta Mari Jose ekainaren 3an
ezkondu ziren Arantzazun. Bazkaria
Sindikan izan zuten eta ezkon-bidaian
Mejikora joan dira. Zorionak.



LASO

Mikel eta Pili ekainaren 10ean ezkon-
du ziren La Merced elizan. Bazkaria Etxe-
Aundin izan zuten eta ezkon bidaian Meji-
kora joan dira. Zorionak.

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tfnoa: 77 03 62

R

Uribarri Etorbidea, 1
Tfnoa: 77 13 64
ARRASATE



Urteroko ohiturari jarraituz, Makailau eta Tortilla Lehiaketa burutu ziren Sebero plazan domekan. **Makailau Lehiaketan** herriko 11 elkartek hartu zuten parte eta Leintze elkarteko **Eugenio Gallastegik**, epaimahaikoen iritziz makailau onena prestatu zuelako, irabazi zuen. Karkabal elkarteko Aranegi eta Jauregialtzo bikotea bigarren geratu zen. Arratsaldean, berriz, gazteentzat **Tortilla Lehiaketa** burutu zen. Zartakina eta arraultzekin trebeenak **Jon Barandiaran** eta **Mikel Etxebarria** izan ziren. Izadi Mondragon eta Maitane Arizmendiarieta bikotearen tortilla bigarren onena izan zen.



Eguraldia lagun **Haur Dantzarien eguna** ospatu zen domekan Arrasaten. Dantzari ugari elkartu zen eta eurak izan ziren protagonista kaleetan.

Txistularien laguntzaz bana-kuak, arku dantza, zinta dantza, zortzikoak... denetik dantzatu zuten. Dantza egiteaz gain, primeran pasa zuten.



Datozen lau urteetarako alkatea aukeratzeko pleno berezia egin zen zapatuan Udaletxean. Plenoa bukatu zenean **zinegotzi gehienak bazkari baten inguruan bildu**

ziren Kataide jatetxean. Hiru ez ziren joan, Antonio Palacios, Nekane Iglesias eta Ignacio Gimeno. Elkar ezagutzeko eta barriketan egiteko aukera ez zen falta izango.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Marimar

Olarte, 10
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 63

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa

**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Zorionak kiliki eta erraldoiei

Maria Agirre

**Arrasateko Kiliki eta Erraldoien Konpartsa-
rendako aurtengo San
Juanak bereziak izango
dira. Taldeak hamar urte
beteko ditu.**

**Urte horietan, hutsik
egin barik, herriko jai
sonatuenetan atera dira
gaitero, kiliki eta erral-
doiak. Arrasaten ezezik
beste herri batzuetako
jaiak ere animatu dituz-
te eta kanpoan ezagun
egin da hemengo Kon-
partsa.**

**Urtemuga berezia
ospatzeko, inoiz baino
kiliki eta erraldoi gehia-
go izango da herrian.**

Ekainaren 25ean Txan-
trea, Tafalla, Zangotza,
Bilbo eta Arrasateko
konpartsa kiliki eta erral-
doiak ibiliko dira kalean.
Horregatik, pertsonaia horiek
ikusitako negarrez hasten
diren umeen gurasoek, hobe
dizue umea kalera ez aterat-
zea; kilikien aurretik taka-
rraran egitea gustoko duzun
gazteok, berriz, prestatzen
hasi eta benetan koloretsua
izango den ikuskizuna ikus-
tera hurbilduko zareten nagu-
siok, ondo ireki begiak.

KONPARTSAREN HASIERAK

➤Konpartsak bere bidea
85ean hasi bazuen ere, aurrez
izan zen jaietako giroa alai-
tzen zuen kiliki eta erraldoi-

rik. Florencio Pinatxo ardu-
ratzen zen kiliki eta erraldoiak
kalean gora eta behera era-
biliko zituzten gazteak aur-
kitzeaz. Ordurako, Arrasate-
ko gaitero batzuk beste herri
batzuetako jaietara joaten
ziren bertako konpartsaekin
dultzaina jotzera, eta kanpo-
an ikusitakoa herrian eratu
zitekeela bururatu zitzairen.
Ideia horren berri eman zio-
ten SUDC batzordeari eta
azken honek begi onez ikusi
zuen asmoa. Ondoren, kon-
partsa eratzea proposatu zi-
tzaion Udalari eta proiektua
aztertu ostean onarpena eman
zuen Udalak. Kiliki eta erral-
doiak egin eta horiek erama-
teko jendea aurkitu ondoren,
85eko San Juanetan kalera
atera ziren. Jai haietan ome-

naldia egin zitzaion kaleak
alaitzeko ardura alde batera
utzi zuen kilikien aitari, Pina-
txori.

TALDEAREN OSAKETA

Kilikiak eta erraldoiak
eramaten dituzten hamabi
lagunek, bi laguntzailek eta
hamabi gaiterok osatzen dute
Arrasateko konpartsa, nahiz
eta bost bat gaitero baino ate-
ra ez. Partaide bakoitzak bere
zer egin izaten du. Erraldoia
eramaten duenak, adibidez,
dantza egin behar izaten du
eta horretarako aurrez en-
tsaiatu behar da. Erraldoipe-
an joaten den mutil baten esa-
netan, "60 kilo mugitu behar
dira eta hori ez da erraza. Kili-
kiak txikiagoak diren arren,
horiek eramatea ere ez da



Martin Bañez de
Artazubiaga



Sancha Ochoa de
Ozaeta y Marzana



Gomez Gonzalez
de Butron



Elvira
de Leiva

txantxa. Erraldoiekin atsedena har daiteke baina kilikia eramaten duena beti egon behar da mugitzen eta gainera, kareta kendu ezin duenez, bero izugarria jasan behar izaten du". Batzutan, aurreko eguneko juergaren ondorioak eta eguraldi beroa bat-

zen zaizkie kilikia daramatenei eta, izan da zorabiatu denik ere.

Konpartsako pertsonaiak aukeratzekoan, Arrasateko historia eta bizimodua hartu zen kontuan. Indianoak, piratak, pirata urdinak, olagizonak, artzaiak eta inkisidoreak

osatzten dute kilikien familia. Guztiek beldurrezko izena eta aurpegia badute ere, on itxura handiena duena, artzaia, ei da umeei beldur gehien ematen diena. Lau erraldoiek Martin Bañez de Artazubigak, Sancha Ochoa de Ozaeta y Marzanak, Gomez Gonzalez


de Butronek eta Elvira de Leivak, garrantzia izan zuten herriaren historian eta umeak beldurtzeko asmorik izaten ez badute ere, batzutan txikienen negarra eragiten dute. Konpartsa osatzten duten zaldikoak, bi urte beranduago sartu zirenez, denbora gutxiago daramate konpartsan eta horiek ere dantzaz egiten dute.

KANPOAN EZAGUNAK

Urtean zehar hilerrri ondolan dagoen txoko batean lotan egoten diren kiliki eta erraldoiak ez dira San Juanetan, Santamasetan, Haratuzteetan eta Maritxu egunean bakarrik kalera ateratzen. Itxura denez, jai giroa gustoko dute eta horregatik beste herri batzuetako jaietara joan izan dira,artzelona, Bilbo, Gasteiz, Andoain edo Tolosa... Gainera, konpartsen bilkuretan parte hartzen dute. Bilkurak aproposak izaten dira batzuen eta besteen arteko desberdintasunak ikusteko. Arrasateko erraldoiak, adibidez, pertxazkoak dira eta euren berezitasuna dantzan egiten dutela da.

Eta aurrera begira zer? Iruñeko kiliki eta erraldoiek 125 urte dutela jakinda, herrikoak oraindik "gazteak" direla esan daiteke. Ondo zainduaz gero, bizitza luzea izaten dute. Herrikoiei tratu ona ematen zaie, kolpeak konpontzen zaizkie eta iaz kilikiei arropak berri ziztaizkien. Udalak urtean 190.000 pta. inguru luzatzen dio konpartsari eta zati bat mantentzen zuzentzen da.

Hamar urte gutxitxo dira kiliki eta erraldoiendako baina ez horiek eramaten dituztenendako. Konpartsan gustora eta jarraitzeko asmoz dauden arren, erreleborik ez dute ikusten eta kide berriak aurkitzea benetan lan astuna izaten da. Jende faltagatik behintzat ez daitezela kiliki eta erraldoiak kalera irten barik geratu.



Indianoa

Atzerrira joan zen aberastasunaren bila baina horrek ez zion kulturarik eman.



Pirata

Lagunartean ateratzen ziren ondasun eta prestigioa lortuz.



Pirata Urdina

Arrasateko pirata, Cadiztik itsaso zabalera irten zen abentura bila.



Olagizona

Olenjabeak. Oletan hainbat herritarrek egiten zuten lan.



Artzaia

Gure herriko pertsonaia, mendian ardiekin batera bakartasunean bizi dena.



Inkisidorea

Errepresio gogorra eraman zuen aurrera eta jendea hiltzera kondenatu zuen.



ZURICH ASEGURUAK



Casimiro Briz Salinero
Aseguru-Abolkularia

Bulegoa: Eskatu Pabilioia
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Tfnoa: 79 42 35 • Tfnoa/Faxa: 79 71 52
ARRASATE

La CEPA RIOJANA

Jatetxea/Taberna

Berezitasunak:
patatak pipar biziakin
Untxia saltsan eta denetariko frijituak

Ferrerias, 19 • Tfnoa: 79 20 02 • ARRASATE



Kirain
ESTETIKA ZENTRUA
Depilazioak
Masaia
Tratamenduak
Rakel Uribarren
C/ Ibargoia nº 13 Bajo Izq.
Tel: (945) 44 52 99
ARAMAIO



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

San Juanetan kirolak ere izango du bere lekua



San Juanetan kirol ikuskizunak ez dira falta izango. Urtero bezala, herri kirolak, txirrindularitza lasterke-ta, pilota partiduak eta rugby-a izango dira.

Txirrindularitza

57. San Juan txirrindulari saria lehen eta bigarren mailako afizionatuentzat izango da jokuan domekan goizeko 9.30etatik aurrera. Ibilbidea: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, San Prudentzio, Bergara, San Prudentzio, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzagain, Eskoriatza, Arrasate, San Prudentzio, Bergara, San Prudentzio, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzagain, Eskoriatza, Arrasate, Kanpazar, Kataide, Eroski, Arrasate, Kanpazar, Kataide, Eroski eta Garibai. Etorriko diren 150 txirrindulariek 140 kilometro egin beharko dituzte.

Herri kirolak

Herri kirolen ikuskizuna astelehenean izango da eguerdiko 12etan. Laubideko zezen plazan harrijasotzaileek, aizkolariek, trontzalariek eta txingalariek hartuko dute lekukoa eta sarrera dohainik izango da. Aizkolari lanetan Xabier Orbegozo Arria V-a. arituko da, oinbiko lau enbor moztuko ditu. Ikuskizun hori bukatu eta gero, lau lagunez osatutako bi taldek harri jasotzen, txingatan, korrika eta trontzan neurtuko dituzte indarrak. Lehen taldean, Arria IV.a, Antonio Esnal, Iñaki Zunzunegi eta korri-



Txirrindulari eta pilotariet gogor egin beharko dute lan.

kalari bat izango dira, bestean Jose Kruz Goenaga, Iñaki Aiarza, Jose Antonio Labaka eta Jose Apalanza, Estatuko maratoi txapeliduna. Horiez gain, Aimar Irigoien 9 urteko harrijasotzailea lanean ikusteko aukera ere izango da. 40 kiloko harria altxatzen saiatuko da Aimar gaztea.

Pilota partidua mundiala

Pilota partiduak ere, urtero legez, euren lekua izango dute San Juan jaietan. Astelehenean arratsaldeko 6.30tan Zaldibarko frontoia galaz jantziko da eta pilota partidu interesgarri eta lehia-tsua egongo dira jokuan. Lehen neurketan Juan Garcia Pirauk eta Reyesek, Txikita de Elosuk, elkarren kon-


tra jokatu dute. Partidu nagusian Txikito de Veneras-Barbero bikotearen arerioak Txikuri eta Ekutixo izango dira. Ikuskizuna, beraz, ziurtatuta dago.

Rugbya Garagartzan

Arrasate rugby taldea eta Baionako Ttipi-Ttapa aurrez aurre izango dira zapatuan arratsaldeko 5etatik aurrera Garagartzako rugby zelaian. Duela hiru urte hasi ziren bi taldeak elkarren kontra jokatzen San Juanetan eta aurtengoa laugarrena izango da, beraz, ohitura bihurtzen ari zaigu San Juan jaietan Iparraldeko taldea eta etxekoa nor baino nor ikustea. Neurketa jokatzeke arrasatearrek beterano eta seniorren artean talde mixtoa osatuko dute.

Orozkoko zezenak kalean gora kalean behera

Zapatuan goizeko 9etan entzierroa izango da. Ferrerias kaletik irtengo dute Orozkoko zezenek, hortik Erdiko kale eta Iturbide zeharkatu ondoren, Laubiden kokatuta egongo den zezen plazara iristeko. Entzierroan hiru idik eta lau zekorrek hartuko dute parte. Zezen plazan bigantxak izango dira protagonista eta toreatzaile ausartek bigan txen aurrean erakutsi beharko dute euren trebetasuna. Domekan ere entzierroa izango da goizeko 9etan, ibilbide berrdinaz. Arratsaldeko 7etan Zezen jaialdia antolatu da Laubideko zezen plazan. Jaialdian bigantxak, zaldiak eta jokuak egongo dira herriko gaztetxoentzat. Astelehenean, San Juan jaietan azken egunean, goiz goizean entzierroa. Arrasateko gaiteroen dianaren ondoren, Erdiko kalea zezenez eta korrikalariz beteko da eta aurreko egunetan bezala zezenak bukatzeko bigantxen ikuskizuna izango da zezen plazan. Jabier Manzarbeitiaren zezenek 12 urte daramatzate San Juan jaietan Arrasatera etortzen eta dagoneko Orozkoko zezenek nahiko ondo ezagutzen dute herria.



Txakolintxintxau txapeldun



Txakolintxintxau talde irabazlea.



Sari ugari banatu zen Ferixalekuen.



Las Mels txapeldunordeak.

Txakolintxintxau txapelduna

AEDko gazteen nesken txapelketan Txakolintxintxau taldea izan da irabazlea. Finalean Las Melsen aurka jardun zuen eta 6 eta 3 irabazi zuten Txakolintxintxau taldeko neskek. Talde honek 20 puntu lortu ditu jokaturako 10 jardunaldietan, 77 gol sartu eta 16 jaso. Las Mels 18 punturakin bigarrena izan da. 3. eta 4. postuak erabakitzeke Orkatzi eta Zeppaesstandon taldeak izan ziren aurrez aurre eta Zeppaesstandonek 4 eta 2 irabazi zion Orkatzi.

Sari banaketa

Finala bukatuta sari banaketa egin zen. Txakolintxintxau taldeak garaikurra, txanpaina eta datorren urterako arropa jaso zuen. Las Melsek garaikurra eta txanpaina. Hirugarren sailkatuak garaikurra, eta laugarrenak txanpaina. Jokalari onenen saria; Susana Santak (Txakolintxintxau) eta Izaskun Aranbarrik (Irekas) jaso zuten. Atezain onena Izaskun Goitia (Izenbakuak) izendatu zuten. Jokalari nabarmenenak: Laura Benito (Zure Atzetik), Isabel Casado (Las Mels), Josune Garai (Zeppaesstandon) eta Maite Uribe (B.G).

URIBE AUZOA TXAPELKETA

Finala

- 18.00 Uglys Txinato - Hirei. (3. eta 4. postuak)
- 19.00 Salenco y Konpañia - Arrasate Kirolak. (Finala)

Finalerdiak jokatu eta gero, final handia jokatu da ostiralean Iturrieko kiroldegian arratsaldeko 7etatik aurrera. Salenco y konpañia eta Arrasate kirolak izango dira aurrez aurre. Talde biek finalerdiak nahiko samur gaingitu zituzten eta finalean zer egiteko gauza diren erakutsi beharko dute. 6etan Uglys Txinato eta Hireien artean 3. eta 4. postuak erabakiko dira.

Lubia
OINETAKOAK

JAIETAN ALAI IBIL ZAITEZEN!

Biteri, 1 ☎: 79 66 53 ARRASATE

MURUAMENDIARAZ

Gozotegia
Jai goxo, goxoak izateko

Erdiko kale, 28 ARRASATE



Bidaiatzeko eta jatzeko
 poltsak
 Bisuteria
 Opariak
 Edertasun kabinetea
 Solariuma

*** Kosmetika**

Lancaster
 Guerlain
 Elizabeth Arden

*Promozio eta opari handiekin

Kanpatorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASTE

*Etxe txukuna
 txoko kuttuna*

Ehune

*Otalora, 22
 Tfnoa: 77 11 48*



rikardo

arregi

*Baloraziozko
kazetaritza*

Sekzioa

Erreportaia

*Herrietako
Aldizkariak*

Uztailak 8

Sarien banaketa



kazetaritza

29119

КАЗЕТАРИТЗА

saria

Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua Monterronen

Sortu berri den Arrasate Musikaleko Bandak "San Juan Kontzertua" eskainiko du ekainaren 24an eguerdiko ordubatean Monterronen. 1994ko abenduaren 31an estreinatu zen banda honen lehen kontzertua izango da Arrasaten, eta horregatik erronka handia dela adierazi du Jose Ramon Vitoriak, bandako zuzendariak.

Musikari gazteak

62 musikarik osatzen dute banda gazte hau: horietatik bost akademiako irakasleak dira eta gainontzekoak ikasleak. Musikari gazteenak bederatziru urte dituela eta gehienak ikasleak direla kontuan izanik, bandako musikarien batzuek beste adina 17 urtekoa dela azpimarratu behar da. Jose Ramon Vitoriak adierazi duen moduan "banda honen helburuetariko bat pedagogikoa da. Ikasleak bakarka edo euren instrumentua duten lagunekin batera ohituta daude. Bandan, beste instrumentu batzuekin jotzera ohitzen dira eta hori oso ona da."

Bestalde, kalera irtetea eta



ikasleek ikasitakoa jendarean erakutsi ahal izateak ilusio handia egiten diela aitortu du ere: "Oso pozik jotzen dute. Gainera, ohiko obrez gain, gaur egungo abesti

tu du ere: "Oso pozik jotzen dute. Gainera, ohiko obrez gain, gaur egungo abesti

modernoak ere lantzen ditugu eta horrek asko animatzen ditu."

Bandaren itxura aldaketa


Pasodoble, euskal obra eta zarzuelez gain, musika erreperitorioan obra berriak sartu nahi izan dituztela aipatzen du bandako zuzendariak: "Herriko bandek pasodobleak eta zarzuelak baino jotzen ez dituztela uste du jendeak eta hori ez dela horrela erakutsi nahi dugu. Bandari "look" a aldatu nahi diogu eta horregatik, Lennon eta McCartney, Herman eta Manciniren obrak joko ditugu San Juan egunean."

Arrasate Musikaleko Bandarekin batera, akademiako umeen abesbatzak abestu eta Gasteizko eta Arrasateko txistulariek joko dute: umeen abesbatza Izaskun Murgiak zuzenduko du.

Bandaren estreinaldi egunetik, 1994ko abenduaren 31tik, astero astero entsaiatzen dihardu eta partaide guztiak pozik eta gustora joaten ei dira entsaiotara.

EGITARAUA

- SENDEJA CLUB (Kalejira) D. BOREA
- AGUERO (Kalejira) J. FRANCO
- LAUNAKUA R. A. de SANTIAGO
- DRUMMER'S DELIGHT H. MANCINI
- THE PINK PANTHER THEME H. MANCINI
- HELLO, DOLLY H. MANCINI
- BEATLES COLLECTION LENNON-McCARTNEY
- GORA ARRASATE J. ARZAMENDI
- SAN JUAN HIMNOA



DISCO-BAR

San Juanetan konbinatu goxoena bertan!

Zarugalde, 17 behea Tfnoa: 79 20 29 ARRASATE



-ek ESKAINTZEN DIE UMEEI SAN JUAN JAI ETA OPOR ALAIK Oinetakoak, amantalak, galtzerdiak...

Zerkaosteta, 15 • Tfnoa: 79 61 13 • ARRASATE



HONA AUKERA ONA! ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUAK
Uztaila EGA	Ekainaren 1etik 27ra	Euskalduntze Alfabetatze	5 ordu

INFORMAZIO GEHIAGO

ARRASATEKO ERDU AEK EUSKALTEGIA

Garibai 14,3 (Sindikatu etxea)
Telefona 77 03 69

BEKA SISTEMA

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

AGÜSTIN Auto Soinua

- Karburazioa
- Kotxeen osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16
Tfnoa: 79 73 58
ARRASATE



Lurrindegia

ERTZ

Opariak

Ferrerias, 29 behea
Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE



MECA RAPID

UDAKO IKASTAROAK Uztailaren 3tik 28ra

IKUS-ENTZUTEKO MEKANOGRAFIA PROGRAMATUA ETA
MIKROPROZESATUA

INFORMATIKA

-Ofimatika ikastaro konbinatuak
WINDOWS, EXCEL, WORD

-Ikastaro monografikoak

WINDOWS, WORD, EXCEL, ACCESS, MS-DOS, WORD
PERFECT, LOTUS 1.2.3., dBASE IV

-Errekuperaketak

TURBO PASCAL, dBASE, BASIC

Egunero 2.30 ordu astelehen, astearte eta ostiraletan

Otalora Lizentziatua, 3-1-C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

LENIZ

Garagardotegia

San Juan jai
zoriontsuak!!

Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29 ARRASATE



BEATRIZ

Poltsa eta
oinetako denda

1946-1995

49 urte...

zure esanetara!

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ERLAJATU ZURE OINAK
IBILIAZ...
urte guztian zehar



Z E R N A H I A G O ?

M^a Pilar Collantes Ruth-Gatzaga jatetxekoa

- Axola zaizu zure adina galdetzea? Ez, 47 urte ditut eta Barakaldoko Santa Ageda baserrian jaiotzen.
- Nola erabaki zenuen sukaldari izatea? Beti gustatu izan zait sukaldaritza.
- Sukaldari gorrarik erabiltzen duzu? Ez.
- Ondo jaten da Arrasaten? Jendeak uste duena baino hobeto.
- Okela ala arraina? Arraina.
- Nori prestatuko zenioke plater berezi bat? Balaratzen jakingo lukeen edonori.
- Luxuzko bazkari batendako edari bat? Ez dakit, edari on gehiegi dago.
- Sukaldean nor da hobe; zu ala zure senarra? Bakoitza bere estiloan bestea baino hobe da.
- Janaria prestatzen duzun bitartean "pikatzen" duzu? Ez, inoiz ere ez.
- Zein sukaldari gustatzen zaizu gehien? Subijana.
- Zergatik horrenbeste sukaldaritza programa telebistan? Modan dago? Orain arte ez delako fundamentozko ezer jan eta gauza gutxirekin bazkari asko egin daitezkeela deskubritu berri delako.
- San Juan Jaieetatik zer da gehien gustatzen zaizuna? Ezin dizut esan, ez daukat jaiak disfrutatzeko astirik eta.
- Dantzan egitea gustatzen zaizu? Bai.
- Zein dantza mota? Agarraua.
- Trajea ala "sport-arropa"? "Sport-arropa".
- Irakurtzen duzu? Bai, baina gutxi.
- Telebista ikusi ala irratia entzun? Biak gustatzen zaizkit.



LABURRAK

Kontzertua bertan behera

Arrasate Musikalek ekainaren 24an Amaia Antzokian arratsaldeko 8etan eskaini behar zuen kontzertua bertan behera geratu da. Kontzertu hau akademiako Kamara Orkestrak eskaini behar zuen. Dena dela, emanaldia beste egun batean izango dela adierazi dute akademiako arduradunek.


AEDko ekintzak

Urtero bezala AEDkoek giroa berotzeko ahalegin berezia egingo dute San Juanean. Alde batetik aipatu behar da 24an eta 25ean Sebero Altube plazan bertsolari eta trikitilarien emanaldiak antolatu dituela, ATBk eskaini eta Udalaren jai-programan agertzen direnak.

Bestetik aipagarria da Txatxilipurdi, ARKO eta EKINekin batera taberna jarri dutela Arbolapetan, lehen Txantxote arrandegia zegoen tokian.

Azkenik, urteroko legez, paparrean jartzeko pegatinak aterako dituzte, "San Juanean euskara darixola zure ezpainetan" lemarekin.

Jai zoriontsuak izan!




AREITIO

Kirolzalea bazara

zatoz AREITIO KIROLAKera

Zarugalde, 35
ARRASATE
Tfnoa: 79 38 38



Ruth Gatzaga

Jatetxea



"San Juan" menua

Sarrerak aukeran:

Urdaiazpikoa eta
solomo iberikoa
Onddo beteak, trufa saltsan
Almejak saltsan

2. platerak:

Legatz kokotea
Rapea nekora saltsan
Azpizuna plantxan

Postreak aukeran
Errioxako ardoa
Kafea

3.500 pta

Perretxikoak dira gure berezitasuna!



Kalitatezko produktu freskoen garantiarekin

IPARFRES harategia

Okendo, 3 • Tfnoa: 77 01 83



TXANTXOTE arraindegia


Azokan, 10. postua • Tfnoa: 79 29 38





TOTEM
OINETAKOAK


Olarte, 41 • Tfnoa: 77 55 05 • ARRASATE



WERU[®]
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

Leire Zubikarai

“Nire kartela kalean ikustean ez dut nirea sentitzen”

23 urteko gazte arrasatear hau San Juan jaietako kartelaren sortzailea da. Lehiaketan parte hartzen zuen lehen aldia izan arren, saria irabazi zuen. Orain, bere lana kaleetako paretetan ikusten duenean, arraroa egiten zaiola esaten du, berea ez balitz bezala.

— Zer dauka zure kartelak besteen ondoan?

— Egia esan, ezin dizut galdera horri ondo erantzun, gainontzeko kartelak ez ditut ikusi eta. Telebistan gainetik ikusteko aukera izan nuen eta nirearen aldean, klasikoagoak zirela iruditu zitzaidan. Nirea formato aldetik oso desberdina da, muntaia bat da, fotokopiekin egindako muntaia bat.

— Ze inpresio eman dizu zure kartela kaleetako paretetan eta jai-egitarauan ikusteak?

— Oso inpresio arraroa. Nirea ez balitz bezala, oso urrutikoa. Dena dela, poz handia hartu nuen jai-egita-



rauan ikusi nuenean, itxura ona ematen duela uste dut. Gainera, ez du lan orijinaletik ezer galdu, berdin berdin dago.

— Lehiaketan parte hartzen duzun lehen aldia izan da eta gainera, irabazi egin duzu...

— Bai, asko kostatzen zait lehiaketetara aurkeztea. Amak eta klaseko lagunek animatu ninduten eta azkenean lanean jarri nintzen. Ez da lan zaila izan; asteburu batean amaitu nuen.



— Nola izan zen kartela egiteko prozesua?

— Arrasateko leku bat aukeratu nuen lehenengo. Beti kanto berdinak agertzen direla konturatu nintzen, hau da, Arbolapetakoa edo Seberokoa eta nik, Iturriotzekoa aukeratu nuen, Abaroa ondoan dagoen kantoia. Kanto horren argazkia liburu batetik atera ondoren, hiru tamaina desberdinetan fotokopiatu nuen eta gero, fotokopia horiek planu desberdinetan jarri nituen kartulinaren gainean, errealita-

te sentsazioa lortzeko. Akuarelekin margotu nuen dena, kolore biziekin eta azkenik, jaietako elementuak gehitu nizkion: umeak bertsotan, dantzariak, musika banda...

— Ezkerreko eskuaz margotzen ei duzu. Ezkeretik hobeto moldatzen direla diote... zer uste duzu zuk?


— Ez dut uste hori egia denik, baina bi eskuak erabiltzeko erraztasun gehiago daukagula egia da. Fakultatean froga bat egiten digute; ezkertiei eskumaz margotu arazi eta alderantziz. Ezkertioak emaitza hobek lortzen ditugu.

— Zer egingo duzu irabazitako diruaz?

— Oraindik ez dut pentsatu baina uda on bat pasatzeko erabiliko dut. Orain arte dirua irabazteko enkar-guzko margoak egiten igaro ditut udak, beraz, uda hau nik nahi dudana margotzen pasako dut.



AVICOLA IRAIN



Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90
Ezkio Itsaso - Antzuola

San Juanen inguruan sei iritzi

Arrasatear guztien iritziak jasotzea gustatuko litzaiguke, "San Juanen inguruan idatz ezazu nahi duzuna" esan eta denak argitaratu. Ezinezkoa ordea, orrialde gutxi izateaz gain, behar beste denborarik ere ez genuke izango eta. Dena dela, batzurenak jasotzeko gauza izan gara; ea bada, jende "marxosoak" zer idatzi duen San Juanen inguruan.



Ondo pasau!

Herriko jaiak datoz eta aurten ere Zubizarreta Alkateak Aurrekua dantzatuko digu herritarroi. Jai programa begiratu eta iazkoarekin konparatuta desberditasun gutxi ikusten dut. Batzuk esango dute ondo dagoela, beste batzuk ez hain ondo eta beste batzuk kontrakoa.

Nire ustez herritarrok bat egin jaiekin eta giro jator eta euskaldun batean murgildu behar dugu, eta hau lortzeko beharrezkoa da herritarren parte hartzea, beraz anima zaitzteke ekitaldietan parte hartzen.

Batzuk lanean arituko gara, beste batzuk ezin izango dira egon, besarkada bat bigarren hauentzat; eta zuek, herritarrak, animo, parte hartu eta ezin dugunon partez disfrutatu!

Asier Bengoa



San Juanak

Aurten ere gerturatu zaizkigu San Juanak, denok gogo handiz itxarondako jaiak. Urte osoan lan egin ondoren gazteen oporrei hasiera ematen dieten jaiak. Pozez eta umore onez bertan lau egun igarotzeko aukera aparta, San Juan sua, errementari dantza, tanborrada eta beste hainbat gauza ikus daitezkeelarik.

Tamalez jai hauetan gazte jendearentzat, gaez edo egunez, tabernetan eta entzierrotan ezik, ez da inolako jai girorik somatzen. Hauetaz aparte kontzertu, antzerki edo horrelako ikuskizunak egon beharko liritekeela uste dugu gazteok.

Hurrengo urterako zer-bait aldatuko delakoan, ondo pasau ta gutxi gastau, ta bueltak be gastau.

LARRAITZ VAZQUEZ



Ixotu deigun sue!

Ixotu deigun sue eta dantzatu haur, gazte eta edadetuek ere.

Dantzatu dezagun, errementeri dantzan, herri bazkarian, tanborradan, pailazoen festan, txarangaren inguruan, trikitilarien baitan, kiliki eta erraldoien korroan, herriko plazan orkestaren martxan...

Herriko jaiak dira, herriak antolatu eta herriak disfrutatu.

Bat, bi eta hiru!! Aupa!

- Kalera irten zazu!

- Zure martxa kanporatu!


- Abestu, gozatu eta farrez leherthu!

- Gaurik luzeena aprobetxatu!

Aurtengo suaren garrak ez daitezten itxungi San Juan jaixetan parte hartu daigun!

**AMAIA GABILONDO
ETA URRI URIZAR**

TITARE



**Lentzeria • Kortsetegia
Bainujantziak**

Olarte kalea, 6 • Tfnoa: 77 10 16 • ARRASATE

ETXOSTE taberna

**Ondo ibili
San Juanetan!**

Olarte, 22
Tfnoa: 79 09 27
ARRASATE



1942ko San Juanak

Gerra bukatu berri, Arrasateko etxe askotan tristura zen nagusi, exiliatuak, gartzeleratuak eta hildakoak. Hala ere, gaztea beti gazte eta guk jaietarako ilusio ikaragarria geneukan.

San Juanetako hiru egun haietan, jaiak, dotoretasunak (arropak) eta janariak (behar bada inportanteena) bat egiten zuten. Orduan ez zegoen ez bidaiarik, ez kanping-ik eta ezta oporrik ere. Bergarako pazkuak, San Juan, Santiago, San Inazio, Garagartza eta Oñatiko San Migelak ziren gure oporrak.

San Juanetan udako soinekoa estrainatzen zen, jostunak eginda. Jaia bezperan hasten zen, etxafleroak, txistularien eta Lizarrako dultzainarien kalejira. 7etan Salvea Udal Batzar osoarekin, San Juanen irudia bizkarrean hartuta eta aurretik txistulariekin. Gero kale giro polita sortzen zen, eta mutil eta gizonak txikiteoa egiten zuten, tabernaz taberna San Juanen ereserkia abestuz (emakumezkoak etxera lanera).

Gauetz dantzaldia hasten zen eta ahal zuenak kafea hartzen zuen. Gazte eta gizon

koadrila askok afaria ere izaten zuen San Juan bezperan.

9etan sua pizten zen herriko plazan, eta dantzariak, neska ederrak lagun, aurrekua egiten zuten, buru Agirre maixua zutela.

San Juan egunean dena zen poza, kalejirak jaietarako gonbidatutako dultzainari eta musika bandekin, buruhandi eta erraldoiak... Goizeko 10etan Meza Nagusia Udalarekin batera, jantzi dotoreenarekin joan beharra zegoen, gizonezkoak trajea jantzita eta emakumezkoak soineko berria erakutsiz. Meza bukatutakoan bezperan ekarritako Santua itzultzen zen Udalletxera, eta gero kontzertua plazan. Orduan emakumeek ez zeukaten tabernan sartzetik eta, inork kasinora gonbidatu ezean, etxera joan behar izaten zuten amari laguntzera, bazkari handia zerbitzatu beharra zegoen eta.

24ko bazkaria berezia izaten zen. Etxe askotan gonbidatua izaten zuten, normalean kanpoan bizi ziren senideak. Autorik ez zegoenez (baina bai tren) etortzen zirenak lotan geratzen ziren. Bazkaria honako hau izaten zen:

1-Fritoak eta Errusiar entsalada oliba olioaz. Jakin, orduan oliba olio extraperloan erositara 90-100 pta. balio zuela litroko eta eguneko 8-15 pta. irabazten zirela.

2- Oilaskoa, balkoiko kaponeran gizendutakoa.

3-Marrubiak chantillyaz.


Arratsaldean eta iluntzean dantzaldia egoten zen eta senar-emazteak afalostean zerbait hartzera irteten ziren.

Hurrengo eguna txirritu girokoa izaten zen. Arratsaldez eta iluntzean berriro dantzaldia. Azkena politena izaten zen. Goizean goiz sokamuturra, "Idiarena" kalejira, plazan antolaitakoak eta leher eginda denok etxera.

1942. urtean aste beteko korridak egin ziren, Pasaiari bizi ziren herriko bi seme antolatuta, Yurre anaiak. Zezen plaza Maalan jarri zen. Hura izan zen urterik onena.

Oraingo jaiak berriz, ez dute gozotasun hura, jende askok kanpora aldegiten du.

Antoni Uribarren



Lotsa kendu eta kalera!

San Juan Jaiak onak ala txarrak dira? Hau da betiko galdera.

Nere ustez jaiak jendeak egiten du, nahiz eta ekitaldi ugari izan programa barruan, jendearen partaidetza barik programa horrek ez du bere helburua betetzen.

Beraz, jendeak lotsa alde batera utzi beharko luke eta festa giroan sartu, ea denon artean giro alai lortzen dugun.

JON EZPELETA



Eguraldi onarekin jende gutxi

San Juanak tradizio jaiak dira, eta oso ondo daude zentzu horretan. Gertatzen dena zera da: eguraldi ona egiten badu, jendeak kanpora irteteko ohitura hartu duela eta gero eta giro gutxiago sortzen dela kalean.

Nire ustez, gazteek hartu beharko lukete jaietako protagonismoa, koadrilan bildu eta giroa berpiztu beharko lukete... herritarrek izan beharko lirateke jaien arima. Dena dela, San Juanetan giro berezia ere nabarmentzen da oraindik, Zigarrolan bertan jendea ohi baino aurpegi alaiagoz ikusten da, pozik dagoela igartzen da.

Guk galiziar talde moduan oraindik ez dugu parte hartu San Juanetan, baina badirudi jendea berotuta dagoela eta baliteke datorren urterako, lokalen bat eskuratzen badugu, zerbait egitea. Polita izango litzateke dantza talderen bat antolatu eta bertako jaietan parte hartzea, baina hori ikusteko dago oraindik.

MANOLO MOREIRAS




HYUNDAI

3 URTEKO GARANTIAZ

Autos Aitor

Gipuzkoa Etorbidea, z/g
Legarre Pabiloia • Tfnoa/Faxa:: 79 94 11
ARRASATE



Talde horretako batzuk Arrasateko bandako partaide ziren eta San Juan hirugarrenez irten zuten musikari, batzuk benetako musika tresnekin eta imitazio bikainekin beste batzuk.

Taldeak kartel edo pankarta bat ere atera zuen. Bertan ageri den esaldia Julio Markaidek sortu zuen, eta garai hartan euskarak zensura handia izaten zuen eta nahikoa erreparorekin atera zuten. Honela zioen: **“Beti gazte. ¡Eup! Er’iko ta erbesteko neskatzak**

artu gure besarkada”.

Eskilaratan, goitik ezkerretik hasita, **Gabriel Mendizabal, Sabin Zubizarreta, Eugenio Otxandiano** (kartelarekin), **Adrian Palacios, Jose Luis Otxandiano** eta **Tomas Azula.**

Jose Luis Riviere, Jose Luis Abarrategi, Alberto Abasolo, Karlos Beltrán, Jose Luis Abasolo, Kasimiro Barandiaran eta **Jose Mari Oruna.**

Iñaki Inda, Eusebio Gomez, Adolfo Gomez, Jabier Lamarain eta

Fermin Aranbarri.

Neskatala-mutikoak, **Beatriz Larrañaga** eta **Angel Barandiaran.**

Goizeko 6etan hasten zuten euren lana; Zaldibar inguruetatik irten eta diana jotzen hasten ziren alkatearen etxe aurrean. Orduan Julio Otadui zen alkatea.

Bederatzi t’erdiak aldera hamarretakoa egiten zuten Zarugalden, Konkonen etxean zegoen bodegan, mistelarekin ondo bustita.

Ikus 45. orrialdea.)

an Juanetan giroa jartzeko banda antolatuta zuen Beti Gazte kuadrilak 1955ean.

PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND METODOA)
- DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

Jai ederrak opa dizkizuegu!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Errealfirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONSULTA

- Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE


MODAREN HIZKUNTZA



Dotoretasunez jantzi nahi baduzu, TROKO ezagutzera gonbidatzen zaitugu. Jantzietan nobedade guztiak aurkituko dituzu denda berrian.

*Erdiko kale, 14
ARRASATE*

*TROKOk jai zoriontsuak
opa dizkizu*



Etxe

Altzariak eta
apainketa

Gonzalo Etxebarria



FERRERIAS, 17 • ARRASATE • Tfnoa/Fax: 79 03 17



ALDEDI

Biteri, 8
Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84
ARRASATE

*Ondo pasan
San Juanak!!*



urrengo urtean, 1956an, esperientzia errepikatzea pentsatu zuten Beti Gazte koadrilako musikari trebeek, baina ez ziren bakarrik izan lan horretan. Talde mistoa osatu zuten, neska eta guzti.

Hamarretakoaren ondoren (baina hamarretakorik egin barik) hasten ziren neskak kalez-


kale. Musikarien inguruan lazuarekin korroa osatzen zuten, dantzan egin eta ikusmira bikaina sortzen zen talde honen inguruan, erretratu hauetan ikus daitekeenez.

Kalistroetan ateratakoan, atzeko iladan, **Miren Ayastuy, Tere Okina, Amaia Juldain, Rosario Altube, Sabin Zubizarreta, Libe**

Arabaolaza, Edurne Zaitegi eta Rosita Ugarte.

Behean, **Mari Karmen Atxa, Beatriz Larrañaga, Elvira Villar, Angel Barandiaran eta M^a Luz Arregi.**

Musikarien artean, eskumako ilaran hirugarrena, **Jose Luis Mendieta** eta bostgarrena **Rafael Ortubai**, aurreko orrialdean falta direnak.



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68 ARRASATE



Koroak • Ezkontzarako lore sortak
Landareak • Lore guneak
Mondragones kalea, 9 Tfnoak: 79 12 30 / 79 04 84
ARRASATE

Jaiak objetiboan

Arrasatear gehienek San Juan jaiak disfrutatzeko dituzten bitartean, bada jai hauetan inoiz baino lan gehiago egiten duenik: sukaldariak, kale garbitzaileak, udaltzainak, barrakeroak... eta baita Arrasate Telebistako langileak ere. Lerro hauen bidez jaietan lan egiten duten telebistako langileen inpresioak jaso nahi izan ditugu.

Ospitale zaharrea izkutatzen diren kamara, mikrofono, monitore, kable eta traman-kulu guztiak San Juan jaietan kalera ateratzea erabaki zen

orain dela lau urte. Leku aldatze honen helburua ez zen material guzti hau haizea hartzeraz ateratzea, baizik eta horrenbeste beldur edo errespeto ematen duen telebistaren mundua kalera atera eta jendeari erakustea.

Eta horrela, bukaera zoriontsuko ipuin bat bailitzan, lau urte hauetan zehar Sebero Altube plazan jarritako karpapetik makina bat pertsona igaro izan da: Barreak, urduritasuna, hankasartzeak, lotsak... era guztieta-ko esperientziak ezagutu dituzte aurkezle gisa 4 urte hauetan Sebero Altubeko karpapean aritu direnak, kamara aurrean aurpegia eman behar izan dutenak.

AURPEGIA EMATEN EZ DUTENAK

Baina bada telebistan aurpegia ematen ez duenik, aurkezleek beste garrantzi izanda ere; kamararen atzean lan egiten dutenei buruz ari gara. Arrasateko ikusleek arratsaldeko 7etan lasai lasai euren etxeetan eserita goizeko 9etan izan den entzierroa ikus ahal izan dezaten, goizean goiz jai-ki behar izan direnei buruz ari gara... San Juan jaiak objetiboaren bestaldean bizi izaten dituzten horiek dira Arrasate Telebistako langile teknikoak.

Aurten Jonek, Iñigok, Beak eta Agurtzanek osatuko dute lan-talde hori. Jakin badakite lan gogorra dator-


kiela gainera eta lan ordutegirik gabeko egunak igaroko dituztela. Tanborrada, trikitaliak, bertsolariak, San Juan sua, Errementari Dantza, barrakak, kaleko giroa, txarangak, herri-kirolak eta beste hamaika gauza gehiago grabatuko dute egun hauetan zehar. Urtean zehar hiru egunez baino ez bada, telebista kalera ateratzen da eta euria, beroa nahiz txingorra egin, 4 kiloko kamarari eutsi eta tinko egon beharko dute lau tekniko hauek nonahi.

ATBko kontrol-gelan dozenaka bideo-zinta pilatuko da egunotan eta bertako makinak jo ta ke arituko dira bideoak egiten eta elkarriketak montatzen.



ATBko lan-taldea, kamara osteko benetako protagonistak.

aren bestaldean



**Jon Aldanondo,
taldeko "boss" a**

— Lan astuna da?

— Astuna baino, luzea, ordu asko dira. Korrika eta presaka, beti dago azken orduko zerbait grabatu beharra. Egunaren bukaeran fisikoki eta psikikoki oso nekata amaitzen dugu.

— **ATBko arduraduna zara. San Juanetako programazioaren ardurak asko pisatzen du?**

— Beti dago ondo aterako ote den ardura. Aurrez dena lotuta edukitzen ahalegintzen gara, baina azken ordukoak ezin ekidin daitezke. Dena dela, pisu hori aurrez ongi banatzen ahalegintzen gara erabat ito ez gaitzen.

— **Jendeak badakizuten baterainoko lana den?**

— Ez nuke jendeak jolasean ari garenik pentsatzerik nahi. Urteko erronkarik handiena da guretzat. San Juan jaietan, lanik arinena ere lan gogorra bihurtzen da.

Egun hauetako lanaren alderik txarrena? Festak izan eta lan egin beharra



**Iñigo Andola,
taldeko saltseroa**

— Zu zara taldeko saltseroa. Zer diozu?

— Ba zuk ala badiozu behar bada egia izango da, baina ez naiz bereziki horretan saiatzen.

— **Gogorra da San Juanetan lan egitea?**

— Ez dakit zer esan... Bai, gogorra da baina baditu bere bitxikeriak; baditu normalek ateratzen diren lanak, eta behar bada teknikari batek benetan bere "doteak" azal ditzakeen egunak dira.

— **Zer da gutxien grabatzea gustatzen zaizuna?**

— Makailau lehiaketak; kristoren gosea pasatzen dut!

— **Zer esango zenioke ATBko ikuslegoari?**

— Ba, Seberora hurbil dadila, guretzat poz handiena hori da eta.



**Agurtzane Lizarralde,
taldeko arrasatearra**

— **Zu zara taldeko arrasatear bakarra. Inork baino inbidia gehiago pasatuko duzu San Juanetan...**

— Ba bai, inbidia pasatzen da. Egunean zehar lan asko egoten da eta jaietz disfrutatzeke astirik ez. Dena dela gauez ateratzen naiz baina ez dut gehiegi edaten, neska formala naiz eta gainera hurrengo egunean goiz esnatu behar izaten dugu.

— **Zer moduzko esperientzia izan da orain arte San Juanetan lan egitearena?**

— Ona baina zer esango dizut, arrasatearra naiz eta herriko jaietan lan egin behar izatea ez da txantxetako. Aurten gainera asteburuan dira jaiak.

— **Kamarak daukan pisuarekin... bero asko pasatzen duzue?**

— Nahikoa bero pasatzen dugu, bai. Aurten, dudarik gabe, praka motzak eta jantzi arinekin etorriko naiz lanera!



**Bea Narbaiza,
taldeko berria**

— **Zure lehenengo San Juanak izango dira lanean. Zer entzun duzu?**

— Beno, ba, gogor samarra izaten dela, batez ere tramankulu guztiak kalera ateratu behar izaten direlako. Lan hori bukatuta, bestea erreza ei da. Ez dakit... hurrengo urtean erantzungo dizut ganoz!

— **Zein izango da zure lana?**

— Printzipioz egunean zehar burutzen diren ekitaldien laburpena egitea.

— **San Juanetan lan egin behar izatearen alderik txarrena?**

— Oraindik ez dakidala Silvio Rodriguezek 24an Donostian emango duen kontzertura heldu ahal izango naizen.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Larazaintzako
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN jatetxea

Giro
abegikorra


Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE




**LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIRAKO ETA
NARRUZKO ARTIKULUAK**

Iturriotz, 4 • ARRASATE • Tfnoa: 79 14 84



Ohiana

ARTE ETA APAINKETA



Ohiana

ARTE ETA APAINKETA


ZORIONAK!!

Arrasate Pasealekua, 8 ARRASATE Tfnoa: 77 14 56



ATBko programazioa San Juanetan

Aurten ere kalean izango duzu Arrasate Telebista, beti bezala, Sebero Altube plazan jarriko den karpapean. Dena dela, aurten programazio desberdinaz dator herriko telebista; inoiz baino gehiago herritarren partaidetza izango da protagonista. Zapatu, domeka eta astelehenean zehar, lehiaketak, musika jaialdiak eta San Juan jaietako ekitaldien jarraipen-erreportaiak emitituko dira: Goizez 12.30etatik ordubata t'erdietara eta arratsaldez 6etatik 8etara izango da programazio ordutegia.



Euskal Musika Instrumentuen Jaialdia

Zapatuan arratsaldeko 6etan izango da programa hau. Liher Larreak aurkeztuko du eta trikitixa, txalaparta eta tobera emanaldiak izango dira. Emanaldiez gain instrumentu bakoitzari buruzko erreportai bat ere ikusi ahal izango da.



"Karaokea"

Txatxilipurdik antolatuta eta Eider Otxoak aurkeztuta, punta-puntako abestiak kantatzeko aukera izango dute horretara ausartzen diren guztiek. Domekan arratsaldeko 6etan.



"San Juanak" bideoa

Egunean zehar izandako ekitaldi garrantzitsu eta ikusgarrienei, jarraipen berezia egingo zaie San Juanetan. Elkarrizketa eta abarrez osatuta, 15 minutuko erreportaia. Zapatu eta domekan 19.00etan eta astelehenean 13.30etan.

"AED Ekitaldiak"

Zapatu eta domekan 19.20etan bertsolari eta trikitilarien emanaldia Sebero Altubetik. Arrasate Telebistak emanaldi guzti horiek zuzenean eskainiko dizkizue. Bertso apartak eta trikitixa soinu freskoak zapatu eta domekan!

"Ze bero ATBn!" lehiaketa

Idoia Peñakobak eta Unai Torresek aurkeztuko dute lehiaketa hau. Zapatu eta domekan irabazle ateratzen diren bikoteek asteleheneko finala jokatuko dute. Dena dela, bikote galtzaileek "walkman" bana etxeratuko dute eta finaleko bikote irabazleak bideo kontsola bat.


	24 ZAPATUA	25 DOMEKA	26 ASTELEHENA
12.30	"Ze bero ATBn!" lehiaketa	"Ze bero ATBn!" lehiaketa	"Ze bero ATBn!" lehiaketa
1.30	X	X	"San Juanak" bideoa
18.00	Euskal Musika instrumentuaren jaialdia	Karaokea	X
19.00	"San Juanak" bideoa	"San Juanak" bideoa	X
19.20	"AED Ekitaldiak"	"AED Ekitaldiak"	X

• ESAERA •

“Gugan pozik aurkitzen ez badugu, alferrik da beste inon bilatzea”.


LA ROCHEFOUCAULD

• JEROGLIFIKOA •



Gaizki egindako erligioaren ikuspegitik

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Abegi on egiten duena. 9. Aparteko, izugarri. 10. Garo, iratze. 11. Gaixo. 12. Mediterraneoan itsasoratzen da. 14. Asiako ibaia. 16. Arabako mendia (1.187 m.). 18. Setatsu. 20. Zeregin, behar. 21. Putz.

Bertikalak 1. Olabarieta, EH Sukarra taldekoa. 2. Hizketa. 3. Elkartzearen ekintza eta ondorioa. 4. Zuek eta ni. 5. Ugaztunen larruzalean hazten da. 6. Garestitu. 7. Hegazti enbor zultzailea. 8. (Ald.) Txakur. 13. OROIMEN erdian. 15. (Ald.) Esnearen kolorea. 17. Tren-fabrika gipuzkoarra. 19. ASTOaren kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Ilusioa eta gauzak egiteko gogoia behintzat ez zaizkizu falta.

Taurus “Luis XI” gaitzizena jarri dizute. Zergatik uste duzu?

Gemini Askotxo hitzegiten duzu. Zurekin egoteko aspirina hartu behar da.

Cancer Silberio/a deitura izango bazenu, gauzak hobeto joango litzaizkizuke.

Leo Laster hasiko dira merkealdiak. Aprobetxatu!

Virgo San Juanetan gaudelako sutan jarri zara.

Libra Txalo zaparrada galanta jasoko duzu asteburuan.

Scorpio Azterketak ondo egin dituzu eta orain inoiz baino lasaiago zaudete.

Sagitarium Usain txarra eraman nahi ez baduzu, ondo begiratu zer zapaltzen duzun.

Capricorn Gurutzegramak egiten hastea komeni zaizu.

Aquarius Noizean behin lizuneriak esatea ez da bekatua.

Piscis Estilo galanta duzu baina ez da hainbesterako.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologien unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



cerámicas
URIBARRI

*Keramika
erakusketa
eta salmenta*

Uribarri Etorbidea, 22
Tfnoak: 79 81 80 / 77 09 59
faxes: 79 81 80
ARRASATE



S. Carrascal S. L.

Bertan egindako

- **Sukalde altzariak**
- **Armairu enpotratuak**
- **Trastelekurako armairuak**
- **Etabar**

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoako Etorbidea, 6-1 A. Tfnoa/Faxa: 79 01 82



OPEL CORSA

PASIONA ZAITEZ!

Auto gaztea baina ekipamenduan,
segurtasunean eta ekonomian galanta.

230.000 pta.* GUTXIAGO

Hile hau zurea eta zure Corsarena da!



ETZAZU UTZI ERAMATEN!



Opel Astrak konfortean, ekipamenduan
eta segurtasunean irtenbidea ematen
dizu.

300.000 pta.* GUTXIAGO

Etzazu utzi ihes egiten!

OPEL VECTRA

DENA ESKA IEZAIOSU!

Hile honetan bere erosotasunaz, segurtasunaz...
gain 500.000 pta. eskaiezazkiozu.

500.000 pta.* GUTXIAGO

Zorteak keinu egin dizu!



OPEL



TAKOLO
A U T O A K

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEn

TALLERES
OLA

Olabarrena auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46.
BERGARA (Gipuzkoa)